5. zkia. 2005ko martxoa

# baikara

Gipuzkoak... urasoen Federazioa



# ESKOLA KIROLA AZTERGAI



**PREMIOS**
A LA "CALIDAD" EN LA ENSEÑANZA



**PROIEKTUA**
"ONDO JAN, ONDO BIZI"




euskal eskola publikoaren

XIV jaia / agurain / ekainak 5

mugak gaindituz bideak egin

ehige gurasoen elkartea / www.ehige-jaia.org

# editoriala editorial

Aldizkariaren zenbaki honetan, eskola kirola hartu dugu ardatz. Horixe izango da, beraz, aldizkariaren zenbaki honetako gai nagusia, gure ustez badelako garaia kirolari loturiko hainbat alderdi lantzeko. Hari horri tiraka, bada, Lezo ikastetxeko eta Donostiako Herrera ikastetxeko esperientziak bertatik bertara ezagutu ahal izan ditugu; gogoan izatekoa da Herrerako ikastetxeari saria eman diotela, berriki, bertako kirol kudeaketarengatik. Irakaskuntzaren kalitateaz ere jardungo dugu, eta gainbegiratua egingo diogu Kalitate Kudeaketaren Sistemak egiaztagirien banaketari. Bere garaian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutako egiaztagiri horiek aurreko otsailean banatu zituzten, Gasteizen, eta Gipuzkoako hamar ikastetxe zeuden egiaztagiriak eskuratu zituztenen artean. Beste ikastetxe baten esperientzia ere erakutsiko dizuegu, Zarauzko Orokieta ikastetxearena, eragile guztien "aztergai" bihurtu baitute eskolako menua. Eta, amaitzeko, zuen argazkiak, inauterietakoak, aurkituko dituzue orriotan. Ikastetxe askotatik bidali dizkiguzue argazkiak, eta berriro ere zuen "ekarpen txiki eta handiak" igortzeko dei egin nahi dizuegu, beti izango baitute beren tartetxoa Baikaran.

En este número hemos hecho del deporte escolar el tema central de la revista porque consideramos que es el momento de sacar a la palestra varias cuestiones relacionadas con el mismo; de paso hablamos de la experiencia concreta de Lezo ikastetxea y de Herrera de Donostia, recientemente galardonado por esa gestión deportiva que llevan a cabo en el centro. Además hablamos de la calidad en la enseñanza, haciendo un repaso a la entrega de los certificados de Sistemas de Gestión de Calidad (SGC), que en su día convocó el Departamento de Educación del Gobierno Vasco; estos certificados fueron entregados el paso mes de febrero en Vitoria-Gasteiz y diez centros guipuzcoanos se encontraban entre los afortunados. También mostramos otra experiencia de un centro en concreto, Orokieta de Zarautz, donde el tema del menú escolar se ha convertido en objeto de “estudio” por parte de todos los agentes participantes. Finalmente sacamos a luz fotos vuestras, del pasado Carnaval, que nos habéis enviado muchos centros y, de nuevo, os animamos a que nos mandéis vuestras “pequeñas y grandes cosas” que siempre tendrán su espacio en Baikara.

















# laburpena sumario

**3.** EDITORIAL. **4.** HAUR ETA GAZTEEN I. IPUIN ETA PINTURA LEHIAKETA. **6.** III ENCUENTROS DE CINE Y DERECHOS HUMANOS. **7.** MUESTRA DE TEATRO Y VACACIONES EN PAZ. **8.** IKASLEEI ZUZENDUTAKO PROGRAMA. **10.** LA CALIDAD EN LA ENSEÑANZA. **13.** KIROL KUDEAKETARI SARIA. **14.** EL DEPORTE ESCOLAR A EXAMEN. **16.** KIROLARI LOTUTAKO ESPERIENTZIA. **17.** NEURRIRA EGINIKO MENUAK. **18.** BERRIAK. ♣

**baikara**
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**ARGITARATZAILEA**
**BAIKARA FEDERAZIOA**
Baso-Txiki Kalea,
36-atzealdea
20015 Donostia
943-327208
943-274977
e-mail: baikara@baikara.org
rosa@baikara.org

**Koordinatzailea**
Rosa Izquierdo

**Erredakzioa**
Herrera ikastetxea
Eskola Txikiak

**Euskara zuzentzaileak**
Miren Arratibel eta
Aintzane Atela

**Argazkiak**
Luis Mari Unciti
Txema Vallés
Josu Txabarri

**Diseinua eta maketazioa**
Román Ferrero

**Inprimatzailea**
SVP
Tel.: 943 410 800

**Lege-gordailua**
ISSN 1697-9109

Baikara aldizkariak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen du:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTUR SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

## "DONOSTIA, BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN HIRIA" HAUR ETA GAZTEEN I.

# IPUIN ETA PINTURA LEHIAKETA

Donostia hiria bake eta giza eskubideen defentsan erreferentzia izatea nahi du udalak.

Helburu hori iristeko xedez, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza "Donostia, Bakearen Kulturarako Gunea" programa gauzatzen ari da. Giza balioen heziketan eta tolerantziaren pedagogian oinarritzen da programa.

"Donostia, bakearen eta giza eskubideen hiria" izenburuko Haur eta Gazteen I. Ipuin eta Pintura Lehiaketa ere, programa horren beraren barruan dago sartuta. Sentsibilizazio egitasmo honen bitartez, eta hirian hezkuntzaren eremuan diharduten beste hainbat eragilerekin elkarlanean, gizabidea, elkarbizitza, askatasuna, tolerantzia eta elkartasun balioak zabaldu eta sustatu nahi dira Donostiako eskola guztietan. Ikasleek giza eskubideen ezagutzan, esanahian eta defentsan parte har dezaten nahi dugu.

**PARTE HARTZE HANDIA**

Lehiaketa Donostiako ikastetxe publiko zein pribatuetako lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendu zaie. Lanek argitaragabeak behar zuten, eta bakearekin edo giza eskubideekin loturiko gairen bat lantzea eskatzen zen.

11 ikastetxetako 347 ikaslek parte hartu dute, guztira, eta 227 marrazki eta 120 ipuin aurkeztu dira.

Egitasmoan, honako ikastetxe hauek parte hartu dute: San Jose Ikastetxea, Arantzazuko Ama, Mariaren Aurkezpena, Zubiri Manteo Institutua, Eskibel Ikastetxea, Igeldoko Ikastola, Altza Herri Ikastetxea, Santo Tomas Lizeoa, Mariaren Lagundia, Maria Auxiliadora eta Ekintza.

Epaimahaia, berriz, ondoko kideek osatu dute: Donostiako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza, eta Giza Eskubideen Saileko zinegotzia; Ricardo Ugarte, eskultorea; Julia Otxoa, idazlea; Koro Lasa, Gautenako hezitzailea eta Mundu Berria literatura hizketaldien dinamizatzailea; Iñaki Aduriz, Berritzegune zentroaren zuzendaria; eta Eli Rezabal, Udaleko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen saileko arduraduna.

**"Sentsibilizaziorako jarduera bat da, hiriko ikasleen artean bakearen kulturari dagozkion balioak zabaltzera bideratua"**



**Maddalen Gurrutxaga**. Adina 8

**11 ikastetxetako 347 ikaslek parte hartu dute, guztira, eta 227 marrazki eta 120 ipuin aurkeztu dira.**

**Silvia Martín Merino**. Adina 15




# Sariak eta saridunak

**LANEN BALORAZIOARI DAGOKIONEZ, EPAIMAHAIAK ALDERDI HAUETAN JARRI DU BEREZIKI ARRETA: LANEN KALITATEA, PARTE HARTZAILEEN ADINA, IKUSPEGIAREN ORIGINALTASUNA, ETA LANEK GURE HIRIKO EDO EUSKAL HERRIKO GIZARTE ERREALITATEAREKIN DUTEN LOTURA.**

Pinturan hiru sari banatu ditu epaimahaiak, hona hemen sail bakoitzean saritu diren lanak:

- Zortzi urte bitarteko sailean, Santo Tomas Lizeoko Maddalen Gurrutzaga Olanok aurkeztutako lanak jaso du saria.
- Bederatzi eta hamabi urte bitarteko sailean, Santo Tomas Lizeoko Sara Jimenezek aurkeztutako lanak jaso du saria.
- Hamahiru urtetik gorakoen sailean, Maria Auxiliadora Ikastetxeko Silvia Martin Merinok aurkeztutako lanak jaso du saria.

Ipuinetan, berriz, sari hauek banatu dira:

- Hamabi urte bitarteko sailean, Arantzazuko Ama ikastetxeko Lierni Arrietak aurkeztutako lanak jaso du saria.
- Hamabi urtetik gorakoen sailean, Lopez de Zubiri Manteo Institutuko Ixone Romerok aurkeztutako lanak jaso du saria.

Saridunei argazki kamera digital bana eta opari bana eman zaizkie.

Aurkeztutako beste lan batzuk ere saritzea erabaki zuen epaimahaiak. Hori dela eta, lehiaketaren oinarrietan aurreikusitako sariez gainera, beste bederatzi marrazki eta zazpi ipuin hautatu ditu epaimahaiak. Lan horien egileei ere, oparitxo bana emango zaie.

Esate baterako, San Jose Ikastetxeari saria emango zaio egindako lanagatik, ahalegin handia egin baitute ikastetxe horretan, bai ikasleen parte hartzea bultzatzeko bai lehiaketaren helburuak eta balioak ikasleen artean zabaltzeko.







**Sara Jiménez** 9-12 urte artekoako

## Una actividad de sensibilización

**EL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN QUIERE QUE LA CIUDAD SEA UN REFERENTE EN LA DEFENSA DE LA PAZ Y LOS DERECHOS HUMANOS.**

Para ello, a través de la Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos, está desarrollando el programa “San Sebastián, Espacio para una Cultura de Paz"; un programa marco de actuación centrado en la educación en valores y la pedagogía de la tolerancia.

Es precisamente en este programa donde se integra el I concurso infantil y juvenil de cuento y pintura “San Sebastián, una ciudad para la paz y los derechos humanos”. Se trata de una actividad de sensibilización encaminada a difundir y promover, en colaboración con el resto de agentes educativos de la ciudad, los valores del civismo, la convivencia, la libertad, la tolerancia y la solidaridad entre la población escolar de la ciudad para hacerles partícipes del conocimiento, significado y defensa de los derechos humanos.

En el concurso han participado 347 niños y niñas pertenecientes a 11 colegios de nuestra ciudad, presentándose un total de 227 dibujos y 120 cuentos.

Donostia Hiri Hezitzailea / San Sebastián Ciudad Educadora

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos



D O N O S T I A - S A N S E B A S T I Á N

# III ENCUENTROS DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

Los III Encuentros de Cine y Derechos Humanos, organizados por la Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos, en colaboración con Donostia Kultura, se celebran entre los días 11 y 18 de marzo en el Teatro Principal.

El objetivo de estos Encuentros es favorecer y contribuir a la reflexión, la sensibilización y el debate entre la ciudadanía en torno a diferentes vertientes de la vulneración de los Derechos Humanos, utilizando para ello el lenguaje del cine y otras expresiones culturales.

Esta tercera edición, que se inauguró el 11 de marzo, primer aniversario de los atentados de Madrid, y Día Europeo en Memoria y Recuerdo de las Víctimas del Terrorismo, quiere ser un homenaje a las personas que sufren la violencia terrorista.

Más de veinte películas y cortometrajes, además de coloquios y debates con especialistas en derechos humanos, directores de cine, actores y ciudadanía en general, han abordado temas como la mujer y el islam, la prostitución, la globalización, la violencia en las aulas, las niñas y niños de la calle, las niñas y los niños de la guerra, el conflicto palestino-israeli…

Todo ello completado con sesiones matinales dirigidas a la juventud y la infancia, una exposición sobre el "Cómic y Derechos Humanos" en la Biblioteca Municipal y el espectáculo de danza "Bihotzetik" del grupo Verdini, de personas afectadas por síndrome de Down. ♣

ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN



EXPOSICIÓN SOBRE EL "CÓMIC Y DERECHOS HUMANOS"

**Biblioteca Central (Alberdi Eder)**
**Del 11 al 30 de marzo**
**HORARIO:**
**Lunes a viernes: 10'00-20'30**
**Sábados: 10'00-13,30/16,30-20,30**

## Zinema, Topoketen ardatz

**Hezkuntza, Gazteria, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Donostia Kulturarekin lankidetzan antolatu ohi dituzten Zinema eta Giza Eskubideen III. Topaketak martxoaren 11tik 18ra izango dira, Antzoki Zaharrean. Topaketa hauen helburu nagusia hiritarrek giza eskubideen urraketari buruz gogoeta egitea, sentsibilizazioa bideratzea, eztabaida bultzatzea eta informazioa ematea da, eta horretarako, zinemaz eta beste zenbait adierazpide kulturalez baliatuko dira. III. edizioaren inaugurazio ekitaldia martxoaren 11n izango da, hau da, Madrilgo antentatuaren urteurrenean, eta Terrorismoaren biktimak oroitzeko europar egunean.**

# XVII.GAZTEEN ANTZERKI TOPAKETA



Donostiako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Gazteria Sailaren eskutik, 88-89 kurtsotik hona, Gazteen Antzerki Topaketa antolatzen du urtero Donostia Kulturarekin elkarlanean. Bestalde, Euskararen Patronatuak, ikastetxeetan antzerkia euskaraz bultzatzeko programa bat du, eta Gazteen Antzerki Topaketan parte hartzeak funtsezko irizpidea da.

Urte hauetan zehar, logikoa den bezala, Topaketak aldaketa ugari jasan ditu errealitatera moldatzeko saiakeran. Dena den, oinarrizko egiturak finko jarraitzen du; data konkretu batzuetan hiriko gazte antzerki adierazpen guztia elkartzen saiatzen da, merezi duen garrantzia eta bultzada eman eta horrela gertaera interesgarri bihurtuz.

Aurten ospatzen dugun XVII. edizio honek, Topaketak hasierako urteetan planteatutako helburuei zintzo eutsiko die: hiriko gazte antzerkia bultzatzeko eta hedatzeko medio bihurtzea hain zuzen ere.

Gazteak antzerkiarekin kontaktuan jartzea ere bilatzen da, bai era aktibo edo sortzaile batean (eskenatokien gainean edo atzean), bai era pasiboan ere (ikusle moduan bakarrik). Horrela asistentzi ohiturak eta ekintza kulturalekiko gozamena bultzatuz.

Honekin guztiarekin batera, antzerki taldeek, hirian ezagunak eta egokiak diren eskenatokietan –Antzoki Zaharra, Gazteszena eta Lugaritz- beraien antzezlanak antzezteko aukera paregabea izango dute, aktore profesionalen moduan.

Topaketak gazte partehartzaileak motibatzen ditu, bai beraien sormen prozesuan aurrerapenak egiteko, bai euren ekoizpen kulturalen hedapena bultzatzeko.

Partehartzaileek esperientzia baikor eta atsegina bezala bizitzen dute Topaketa, taldeen arteko esperientzia elkar aldaketa bat sustatuz.

Topaketan parte hartzeko gonbidapena hiriko ikastetxe, unibertsitate eta bestelako talde amateurri zuzendutako deialdi baten bidez egiten da. Izena emateko baldintza bakarra dago, partehartzailea 14 urtetik goragokoak eta ez profesionalak izatea.

Taldeetako partaideen batezbesteko adinaren arabera 2 kategoria ezberdintzen dira. Horrela, 18 urtetik goragoko aktorez osatutako taldeak senior kategorian sartuko dira eta 18 urtetik beheragokoak junior kategorian.

Aurtengo Topaketak, Maiatzaren 3an zabalduko ditu ateak eta hilabetearen erdialdean itxiko ditu sari banaketa eta festa batekin. ♣

Donostia Kultura

Donostia Hiri Hezitzailea / San Sebastián Ciudad Educadora

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos

euskararen donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos

# VACACIONES en paz

## 2005

De nuevo Donostia-San Sebastián acogerá este verano a niños y niñas saharauis, de entre 7 y 12 años. Estos niños han nacido y crecido en campamentos de refugiados y, junto a sus familias, están soportando un largo exilio, padeciendo todo tipo de carencias, incluidas las más vitales (alimenticias, sanitarias y educativas) y soportando temperaturas que alcanzan los 50º C en verano.
Con este proyecto solidario denominado “Vacaciones en Paz” se pretende dar a los niños y niñas saharauis la posibilidad de ver en realidad lo que hasta ahora sólo conocían a través de sus libros escolares, como son los ríos, las montañas, los bosques, el mar...

**Cualquier familia puede acceder a este programa sin que exista de antemano ninguna condición previa, excepto que asuman las normas de funcionamiento que se establecerán conjuntamente una vez seleccionadas las mismas.**
**Los interesados deberán llamar al teléfono 943 48 14 71 o acudir al Palacio Goikoa (Mari, 1-1º) al "Area de Cooperación y Derechos Humanos".**



**AZKEN BI HAMARKADETAN, nabarmena izan da gizarte balioen sisteman gertatu den aldaketa. Balio berri horien artean, besteak beste, honako hauek ditugu: banakotasuna, indarkeria, edozer gauza berehala ase nahi izatea edo gauza guztien gainetik plazera bilatzea.**

# Gazteentzako

## programa bat



Jolasaren bitartez, haurren artean elkarrekintza prozesuak sortzen, gatazkak konpontzen, inguruan dauden rol sozialak barneratzen, balioak onartzen, etab. ikasten dugu.

GAIARI BURUZ HAUSNARKETA SAKONA EGIN ONDOREN, IKASLEENTZAKO 3 ESKU-HARTZE PROPOSAMEN EGIN GENITUEN:

- **"Jolasean erronkei aurre egin"**
- **"Jolasean elkar ezagutu"**
- **"Jolasean erabakiak hartu"**

Programa horiek hiru helburu nagusi dituzte: 1. ikasleengan norbanakoaren zein taldearen gaitasun kritikoa ahalbidetzea, 2. elkarbizitzara bideratutako gizarte trebetasunak sustatzea, eta 3. oreka osasuntsua lortzearren, drogekin bizitzen ikastea. Bestalde, helburu horiek eremu ez formaletan burututako ekintza ludikoen bitartez lortzea proposatzen dugu.

Programa horien metodologia jolasean oinarritua da, jolasa inguruneari egokitzeko tresna garrantzitsua baita. Jolasaren bitartez, haurren artean elkarrekintza prozesuak sortzen, gatazkak konpontzen, inguruan dauden rol sozialak barneratzen, balioak onartzen, etab. ikasten dugu. Beraz, jolasa gizabanakoaren garapenean eta batez ere haurrarenean parte hartzen duen osagaia da.



JOLASAREN ONURAK

- Berdintasunean oinarritutako harremanak ahalbidetzen ditu, lankidetza sustatuz eta lehiak baztertuz.
- Egunerokotasunean ezinbestekoak diren gaitasunen trebakuntza errazten du.
- Taldean gatazkak era atseginean konpontzeko aukera eskaintzen du.

Beraz, metodologiak bizipenetan euskarria izatea funtsezkotzat hartzen dugu. Balioak barneratzeko sentimenduetatik abiatu behar garelako, hau da, era praktikoan indartu behar da, eta ez soilik era teorikoan.

EDUKIAK

"JOLASEAN ERRONKEI AURRE EGIN"

- **Norbanakoa zein taldearen ezagutzea**
- **Komunikazio asertiboa**
- **Pertsona arteko harremanak**
- **Enpatia**
- **Emozioak eta sentimenduak**
- **Tentsioa eta estresa**
- **Pentsamendu sortzailea**
- **Erabakiak hartzea**
- **Gatazkak konpontzea**

"JOLASEAN ELKAR EZAGUTZEN DUGU"

- **Berezitasun pertsonaletatik, berezitasun kulturaletara**
- **Komunikazio moduak**
- **Aurreiritziak / Elkar ezagutzea**
- **Kooperazioa**
- **Gatazkak konpontzea**



## Haurrengan sumatutako aldaketak

**Ikasle talde batekin elkartzen garenean, ezinbesteko garrantzia ematen diogu haur guztien parte hartzeari. Beraz, taldeko partaideek beraien iritzia askatasunez emateko gunetzat hartzen dute, eta hartaz baliatzen dira. Beren ikuspegiak garrantzizkoak direla ohartzen dira; ondorioz, garrantzia ematen diote beren buruari, eta aldi berean, gelako aniztasuna errespetatzen dute. Lankidetzan oinarritutako guneak direnez, haurrak ez du baztertuta gelditzeko beldurrik. Halako presiorik ez dagoenez, taldearen izaera berpizten da elkarlanaren bitartez, eta planteatutako helburuak lortzen dira.**

"JOLASEAN ERABAKIAK HARTU"

- **Drogen presentzia**
- **Mito eta estereotipoak identifikatzea**
- **Lagun taldearen ezaugarriak**
- **Aisialdia eta Denbora Librea**
- **Autoestimua eta Autonomia**

## UN PROGRAMA PARA JÓVENES

**En esta ocasión Baikara está llevando a cabo un programa en los centros dirigido al alumnado, que tiene como fin "entrenarle" en las distintas habilidades sociales. La experiencia está siendo realmente positiva, no sólo por la actitud de los participantes sino por la propia participación activa que están demostrando.**

**Estos cursos –son tres los que se están desarrollando- dieron comienzo en enero en la ikastola Amasorrain de Donostia, en febrero se llevaron a cabo en Luis Ezeiza de Eskoriatza y en Jakintza de Donostia y está previsto que se realicen también en Koldo Mitxelena y Cristóbal Gamón de Errenteria, Intxaurrondo ikastola y Oleta de Donostia y en Urdaneta de Ordizia.**





Uno de los objetivos que se pretende alcanzar es crear una red de centros con buenas prácticas de gestión en distintos ámbitos, que constituyan un modelo a seguir.

# la calidad AL SERVICIO DE LA ENSEÑANZA

## EL PASADO MES DE FEBRERO SE HIZO ENTREGA EN EL PALACIO EUROPA DE GASTEIZ DE LOS CERTIFICADOS EN SISTEMAS DE GESTIÓN DE CALIDAD A VEINTICUATRO CENTROS DE LA RED PÚBLICA



El pasado 29 de junio de 2004 en el Boletín Oficial del País Vasco se publicó una Resolución del Viceconsejero de Educación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación por la que se convocaba a los centros públicos de Educación Infantil, Primaria y Secundaria de la CAPV para la realización de Proyectos de investigación y Experimentación Educativa denominados: "Sistemas de Gestión de la Calidad".

Los antecedentes se encuentran en una Orden de enero de 2003 de la Consejera de Educación en la que autorizaba la puesta en marcha de un Proyecto Piloto de Experimentación denominado "Sistemas de Gestión de Calidad". Este Proyecto se planteaba, en un tiempo determinado, con el fin de evaluar las posibilidades y condiciones de su generalización al resto de los centros docentes de la CAPV y preveía un trabajo en redes intercentros con el objetivo del mutuo apoyo y aprovechamiento de las experiencias de cada uno de los centros participantes. Cumplido el plazo señalado, instauradas la calidad y la mejora continua como elementos integran-

Txindoki-Alkartasuna - BEASAIN



Mogel Isasi - EIBAR



Pío Baroja - IRÚN



## Gipuzkoako hamar ikastetxeren "kalitatea" saritu dute

**Hogeita lau ikastetxek lortu dute, azkenik, Kalitatearen Kudeaketa Sistemak ematen duen ziurtagiria, horietako hamar gipuzkoarrak. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak banatu zizkien sariak aipatutako 24 ikastetxe horiei, aurreko otsailean. 24 zentro horien ia erdia, Gipuzkoako bigarren hezkuntzako institutuak ziren.**
**Gasteizko Europa jauregian izan zen sari banaketa, eta lehendakariaz gainera, bertan izan ziren Anjeles Iztueta, Hezkuntzako sailburua, eta hezkuntzaren alorreko beste hainbat arduradun.**
**Bigarren Hezkuntzan Gipuzkoako institutu hauek saritu zituzten: Olazabal (Legazpia), Mutriku, Oianguren (Ordizia), Lizardi (Zarautz), Zumaia, Mogel Isasi (Eibar), Lasarte-Usurbil, Pio Baroja (Irun), Zuazola (Oñati) eta Txindoki-Alkartasuna (Beasain).**

## En Educación Secundaria fueron galardonados diez institutos guipuzcoanos



LASARTE - USURBIL



Olázabal - LEGAZPIA

tes de la actuación de determinados centros docentes era el momento de impulsar un proceso de la Calidad propio y adecuado a la acción educativa de los centros de educación infantil, primaria y secundaria.

Los objetivos que se pretende alcanzar con este Sistema de Gestión de Calidad son, por un lado, promover y facilitar los procesos de mejora continua de los centros educativos al mismo tiempo que dotar a los mismos de la información, asesoramiento y herramientas necesarias para poner en marcha con éxito esos procesos y crear así una red de centros con buenas prácticas de gestión en distintos ámbitos que constituyan un modelo a seguir. ♣

# Diez centros guipuzcoanos

**Finalmente veinticuatro han sido los centros que han logrado el citado certificado en Sistema de Gestión de calidad (SGC), diez de ellos guipuzcoanos. El lehendakari Juan José Ibarretxe fue el encargado de presidir la entrega de galardones a estos 24 centros el pasado mes de febrero, siendo casi la mitad de los mismos institutos de enseñanza secundaria de Gipuzkoa.**
**El acto de entrega se celebró en el palacio Europa de Vitoria-Gasteiz y además del lehendakari asistieron la consejera de Educación, Anjeles Iztueta y otros responsables educativos. En Educación Infantil y Primaria fueron premiados ocho centros de Álava y Bizkaia, así como dos centros de innovación educativa (berritzegunes) de Vitoria-Gasteiz y el de Getxo. En Educación Secundaria fueron galardonados los institutos guipuzcoanos de Olazábal (Legazpia), Mutriku, Oianguren (Ordizia), Lizardi (Zarautz), Zumaia, Mogel Isasi (Eibar), Lasarte-Usurbil, Pío Baroja (Irún), Zuazola (Oñati) y Txindoki-Alkartasuna (Beasain).**

MUTRIKU



Zuazola - OÑATI



Oianguren - ORDIZIA



Lizardi - ZARAUTZ



ZUMAIA



# Una laureada gestión deportiva

**Desde su fundación en 1952 Herrera ikastetxea ha estado fomentando el deporte entre el alumnado, de ahí que haya sido reconocido por la Diputación Foral de Gipuzkoa como el centro de enseñanza más distinguido por su gestión en el deporte escolar.**



Su calidad en la gestión, su nivel de participación en relación con el total de alumnos y alumnas matriculados o su compromiso en el fomento de la utilización del euskera en la práctica deportiva, le han hecho merecedor de este premio que no tiene en cuenta lo cuantitativo sino lo cualitativo.
Herrera ikastetxea ofrece un programa de actividades deportivas en el que su propia oferta invita a que el 100% del alumnado al finalizar la educación primaria, independientemente de sus capacidades físicas, hayan aprobado muchos de los deportes que ofrece el centro, tales como golf, hípica, escalada, actividades subacuáticas, bien como actividad extraescolar o a través de las clases de gimnasia que se imparten en el centro.

## HERRERA IKASTETXEAK "GIPUZKOA KIROLAK" SARIA JASO DU



Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero-urtero, "Gipuzkoa kirolak" sariak banatzen ditu kirola bultzatzeko.
Abenduaren 23an egin zen sari banaketa Kursaal Jauregian. Sariak atal desberdinetan daude banatuta eta ikastetxeen atalean Herrera Ikastetxea izan zen saritua.
Eskola horretan, Lehen Hezkuntzako ikasleen ehuneko ehunek hartzen du parte kiroletako jardueretan eta 9 kirol talderekin du elkarlanerako hitzarmena. Orduz kanpo egiten diren ekintzetako 15 begiraleak titulodunak dira eta eskolako kirol arduradunak, Felipe Gómez irakasleak, koordinatzen ditu. Urtez urte kirol talde kopurua haunditzen doa, aurten 24ra iritsi dira.
Herrera Ikastetxeko eskola-elkartearentzat premiazkoa da sexista ez den ikuspegiko eta konpetitibitate gabeko kirol ekintzak bultzatzea. Era berean, ikasleen arteko harremanak sendotu nahi dira kirol taldean denak integratuz eta bakoitzaren ahalmen fisikoak errespetatuz. Gainera, lagun arteko aisialdi sortzailea areagotu nahi da.
Bukatzeko, eskolatik kirol aniztasuna bultzatzen da eta betiko kirolez gain, hurrengo hauek ere egiten dira: xakea, txirrindularitza, izotz irristaketa, gimnasia erritmikoa, hipika, aikido, mendizaletasuna, hockeya, eskalada rokodromoan, igeriketa, urpekaritza,...

Fernando Urien y Pepe Madueño

Miembros del Consejo Territorial de Deporte Escolar



# EL DEPORTE ESCOLAR, TAMBIEN LÚDICO Y EDUCATIVO

**¿QUÉ ESTÁ PASANDO CON EL DEPORTE ESCOLAR?, ¿QUÉ DIMENSIÓN ESTÁ TOMANDO?, ¿QUÉ PERSPECTIVAS DE FUTURO TIENE?. TODAS ESTAS PREGUNTAS NOS LAS INTENTAN RESPONDER DOS VETERANOS EN ESTAS LIDES Y MIEMBROS DEL CONSEJO TERRITORIAL DE DEPORTE ESCOLAR, PEPE MADUEÑO Y FERNANDO URIEN.**

El Consejo Territorial de Deporte Escolar es un órgano consultivo en el que están representadas las Federaciones deportivas, la Diputación, los Ayuntamientos y los centros escolares y en este punto, representando a los centros públicos de Donostialdea y la zona costa es donde se encuentran Pepe Madueño y Fernando Urien, respectivamente "En ese Consejo es donde se marcan las líneas generales del deporte escolar en el territorio histórico de Gipuzkoa durante el año, aunque no hay que olvidarse nunca de que es un órgano consultivo", afirma Pepe.

Según el representante de deporte escolar de Donostialdea "el deporte escolar a lo largo de estos últimos 15-20 años ha experimentado una evolución a positivo en cuanto a la calidad y cantidad con la que se oferta este servicio en los centros de enseñanza, aunque la situación desde hace dos o tres años nada tiene que ver con todo esto". En la misma línea interviene Fernando Urien para quien desde hace un tiempo el deporte escolar empieza a "decaer", a recibir –según afirma- una carga importante con el tema de la competitividad, especialización precoz...; "se empiezan a dar unos recortes y empiezas a ver cómo desaparece prácticamente el deporte escolar en edad juvenil, cosa que no pasaba hace 8 años donde un alumno de COU de entonces tenía una pequeña opción de hacer deporte escolar".

"Tal vez aprovechando la reforma educativa -continúa diciendo el también coordinador del deporte escolar

# El deporte escolar A EXAMEN



## Eskola kirolaren egoera oso larria da

Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko kide diren Fernando Urien eta Pepe Madueño gurekin aritu dira hizketan, eta eskola kirolak gaur egun bizi duen egoeraz kezkatuta daudela azaldu digute; diziplina guztietan irregulartasun egoerak daudelako daude arduratuta.
Fernando Urienek dio azken urteetan eskola kirola "gainbeheran" dela, eta lehiakortasunaren, espezializazio goiztiarraren... zama jasaten ari da. "Murrizketak izan dira, eta eskola kirola gazteen artean ia desagertu egiten dela ohartzen zara. Orain dela 8 urte ez zen halakorik gertatzen, garai hartan, UBIko ikasle batek ere eskola kirolean jarduteko aukera zuen, aukerak eskasak baziren ere".
Hezkuntzaren erreformaz baliatuta, beharbada, eskola kirola egiteko aukerak murriztu egin dira, eta klubei zuzendu zaie bereziki jarduera hori, horiek kirola ulertzeko modu askori lekua egingo ziotelakoan –lehiakortasun txikieneko aukerak barne, ikastetxeetatik abiatuta–. Baina hori ez da horrela izan, eta federazioek ere ez dute egoera orekatzen; eta, aldi berean, ikastetxeei ez zaie kirolaren alderdi ludikoenean laguntzen uzten.

## "Por diversos motivos estamos asistiendo, prácticamente, a la desaparición del deporte escolar en edad juvenil".

de Lizardi y Orokieta herri eskola de Zarautz-, más o menos coincidió que en la edad cadete (antes 1º y 2º de BUP, que se convierte en 3º y 4º de la ESO) empieza a haber una regresión de las posibilidades de hacer deporte escolar porque se empieza a dirigir más hacia los clubes, pensando que éstos iban a dar cabida a muchas maneras de entender el deporte -incluida la menos competitiva, desde los centros escolares- pero eso no se da y tampoco lo compensa el mundo federado, pero a su vez tampoco se les deja a los centros aportar ese aspecto más lúdico del deporte".

**UN MOMENTO REALMENTE CRÍTICO**
"Estamos en el peor momento en cuanto a desarrollo lúdico y educativo del deporte". Esta afirmación tan contundente la sostienen estos dos miembros del Consejo Territorial y manifiestan estar en un momento crucial y crítico. "Por un lado la competitividad cada vez es mayor, el fútbol cada vez quiere pisar más terreno y aunque, teóricamente, existe una norma común para los tres territorios, el deporte escolar en Gipuzkoa no tiene nada que ver con el vizcaíno y el alavés pero se ve afectado por esta Normativa", se apresura a decir Pepe al tiempo que insiste en que las edades para las especializaciones cada vez son más tempranas, con lo cual se está en un momento muy delicado que puede provocar que se creen dos competiciones paralelas: el que opte por hacer un deporte más o menos de "rendimiento" o el que quiere hacerlo de una manera recreativa, con sus amigos, con sus compañeros de clase sudando la camiseta y, si de vez en cuando ganan, pues bienvenido. "Si todo esto lo unimos a que en el salto de primaria a secundaria hay mucho alumnado que se queda en el camino... y sobre todo chicas".

Fernando aporta un dato más a lo que dice Pepe y recuerda cómo a principios de este curso en el Consejo Territorial de Deporte Escolar se decide que hay que crear un grupo de estudio que estudie a su vez las irregularidades que se dan en edades de benjamines y alevines en todos los deportes. "Se crea una comisión para esto, en la que yo me encuentro, y empiezas a hacer un repaso y te das cuenta de que absolutamente en todas las disciplinas deportivas hay irregularidades con niños en la línea de una mayor tecnificación, una mayor selección..."

Pero todos los males que acechan al deporte escolar no provienen de agentes externos, añade Pepe. "Nosotros como padres y madres, centros escolares, monitores, coordinadores etc, tenemos mucho que hacer y, ¿qué decir de los centros escolares?, porque hay que recordar que el Plan de Actividades Extraescolares y Deportivas de los centros, según normativa del Departamento de Educación, debe ser aprobado cada año por el O.M.R. y que la responsable última de su ejecución es la Jefatura de Estudios."

Par finalizar, ambos quieren mostrarse optimistas con ese futuro del que hablábamos en la entradilla de este reportaje, aunque no deja de ser un reto difícil y complicado a día de hoy. ♣

## Jornadas con las AMPAs

**DADA LA SENSIBILIDAD ACTUAL ACERCA DE ESTE TEMA, desde la Federación se ha acordado llevar a cabo, en el mes de junio, una serie de Jornadas sobre el deporte escolar con las Ampas y los responsables del mismo en los centros, al objeto de establecer un diagnóstico de la situación de la práctica de las actividades deportivas.**
**Por otro lado la Federación como tal es miembro reciente del Consejo guipuzcoano del deporte, un órgano superior de asesoramiento, consulta, seguimiento y debate de la Diputación Foral de Gipuzkoa en asuntos que afecten a la práctica deportiva en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

# “Eguneroko bizitzan kirola eginez atsegin hartuko duten pertsonak nahi ditugu”



Jokin, Pili eta Itxaso

**LEZO HERRI ESKOLA INSTITUTUAK ESKOLA KIROLA KUDEATZEKO "MODALITATE" BERRI BAT JARRI DU ABIAN, LEHIAKETAZ HARAGO, KIROL JARDUERAREN BESTE HAINBAT ALDERDI LANTZERA BIDERATUA**

Aurreko ikasturtean, Lezo herri eskola institutuak esperientzia berri bat jarri zuen abian, eskola kirolari lotua, eta ikastetxean jarduera hori goitik behera aldatu zuena. Ordura arte, Gipuzkoako ikastetxe gehienetan bezala, eskola kirola boluntarioek kudeatzen zuten, inolako soldatarik jaso gabe, “dirurik ez zegoelako” nagusiki. “Asko laguntzen zigun aita batek, libre zituen ordu guztiak jarduera horri eskaintzen baitzizkion, eta bagenituen begiraleak ere, baina urtetik urtera aldatu egiten ziren, jakina, ordain ekonomikorik jasotzen ez zutela eta”, azaldu du Itxaso Brizek, ikastetxeko heziketa fisikoko irakasle eta, lankideekin batera, sistema berriaren sustatzaile denak.
Halako batean, heziketa fisikoko irakasleek planto egin zuten, nolabait esateko; izan ere, beren iritzian, eskola kirolak hezkuntzaren alderditik zer landu asko zuelako eta ordura arte gauzak egiten ari ziren moduan nekez landu ahal izango zituztelako alderdi horiek. “Zorionez, ikastetxe publiko hau bakarrik zegoen herrian, eta Oarsoaldea eskualdeak ere asko lagundu digu, ez baita erabiltzen ohiko sailkapen sistemarik, ez baita prentsara ezer ere bidaltzen…; horrek guztiak asko laguntzen dio gure ikastetxeko eskola kirolaren funtzionamenduari”, nabarmendu du Pili Azpeitiak.

## KIROL BATZORDEAREN BILERA BAT HILEAN

Ikusitakoak ikusita, eta nora iritsi nahi zuten oso garbi zutelarik, haurrei kuota igo zieten, eta eskola kirola koordinatzeko begirale bat kontratatu ahal izan zuten, Jokin. Era berean, kirol batzorde bat sortu zuten; batzorde horretako kide dira ikastetxeko gurasoen ordezkaritza bat; Jokin, begiraleen koordinatzaile den aldetik; eta Pili eta Itxaso, heziketa fisikoko irakaslea eta Lezoko Udaleko kirol arduraduna, hurrenez hurren. Batzorde horrek egin zizkien elkarrizketak begirale izateko hautagaiei; gaur egun, begiraleak kontratatuta daude, eta kirol begirale-hezitzaile profila dute. “Garbi genuen gure helburua ez zela kirolari profesionalak trebatzea; eguneroko bizitzan kirola eginez atsegin hartuko duten pertsonak nahi genituen”, dio Itxasok.
Ikastetxean sistema berria ezarri zutenetik, aldaketa ikusgarriak gertatzen ari dira: ikasleek ez dute partidak jokatzeko soilik entrenatzen, irakasle eta begiraleekin gaitasunak, jarrerak eta jokabideak lantzen dituzte. “Jarduera fisiko soiletik harago, jolasen eta egoera jakinen bidez jarduera horren beste mila alderdi lantzeko entrenamenduak egiten dira”, azaldu du Jokinek, eta adierazi du oso pozik dagoela gazteek emandako erantzunarekin eta hartutako jarrerarekin; horregatik, datozen ikasturteetan ere horrelaxe jarraitzeko deia egiten die. ♣

## Un trabajo en equipo

No cabe duda que la concepción del deporte escolar que tienen en Lezo herri eskola institutua es diferente a la que tienen en otros centros, pero también es verdad que como ellos dicen sin medios económicos no hubieran podido llegar a estar donde están. En la actualidad cuentan con cinco personas contratadas para el deporte escolar, coordinador de monitores incluido, que se dedican a que el alumnado disfrute practicando cualquier deporte y alejados del aspecto puramente competitivo del mismo porque su lema es: “queremos hacer personas que luego disfruten haciendo deporte en su vida normal, que lleguen a una edad adulta y sigan practicándolo y disfrutando con esa práctica”.

# ONDO JAN, ONDO BIZI egitasmoa

**ZARAUZKO OROKIETA IKASTETXEKO IRAKASLE, IKASLE, ETA GURASOAK ADOS JARRI DIRA ELIKADURAN ADITUA DEN PERTSONA BATEKIN, "JATEN IKASTEN" LAGUNDUKO DIEN EGITASMOA MARTXAN JARTZEKO.**





Osasunaren alde egiteko helburuarekin, Orokieta Herri Eskolak "Ondo Jan Ondo Bizi" egitasmoa jarri du abian ikasturte honetan. Elikadurari dagozkion alderdiak landu, eta bizi modu osasuntsua eramateko baliagarriak diren ohiturak ezagutu eta geureganatu behar ditugu eskolaren esparru guztietan, hau da, gela barruan, eskolako jantokian eta, oro har, eskolako antolaketan. Egitasmo honetan parte hartuko dute irakasleek, eskolako jantokiaren kudeaketaz arduratzen diren gurasoek, eta egitasmoaren aholkularitzaz arduratuko den adituak.

Haur Hezkuntzako irakasleak haurrek etxetik ekarritako fruta ikasle guztien artean banatzeaz arduratuko dira jolas garaian.

Lehen Hezkuntzan, berriz, konpromiso bikoitza hartu dute gurasoek: batetik, semealabei etxeko fruta, ogitartekoak edo esnekiak ematea ikastetxera eramateko, eta bestetik, opil industrialak, gozokiak, patata zorroak edo antzekorik ez ematea.

Horrez gain, eskolako jantokia erabiltzen dutenek menu bat prestutako dute, eta ondoren, elikaduran aditu denak menua berrikusi eta osatuko du. Eskolako jantokian hiru hileko menuak moldatuko dira, eta horrekin batera, proposamen zehatzak egingo zaizkie gurasoei bazkari eta afarietarako jakiei dagokionez. Helburua dieta osasuntsuagoa eta orekatuagoa bultzatzea izango da.

**HITZALDIAK**

Egitasmoari ekin aurretik inkesta bat egin zitzaien gurasoei, gai horri buruz zuten kezka interesa neurtzeko asmoz. Erantzun ugari jaso zirenez eta gurasoek interes handia zutela ikusirik, elikaduran adituak elikagaien inguruko inkesta bat egin zuen, eta ordukoan ere, guraso askoren erantzuna bildu genuen. Adituak emaitzen azterketa egin zuen, eta hortik abiatuta, eskolako jateko ohituren profila osatu genuen, familiekin batera lanean hasteko.

Egitasmoaren jarraipena egiteko batzorde bat eratu zen, eta honako hauek parte hartu zuten: jantokiko arduraduna, gurasoen koordinatzailea, hiru hezitzaile, bost ama eta elikaduran aditua. Jarraipen batzordea bi hilabetez behin biltzen da, egitasmoaren bilakaera aztertzeko, sortzen diren zalantzak argitzeko, eta, guraso, ikasle eta irakasleei zuzendutako hitzaldiak bideratzeko. ♣

## El cuidado de la alimentación en el centro

Orokieta Herri Eskola ha puesto en marcha este curso el Proyecto "Ondo Jan Ondo Bizi" que tiene como objetivo promover la salud, mediante la adquisición e interiorización de modos y hábitos de vida saludables, en los aspectos de la alimentación y nutrición, conjugando la práctica educativa en el aula, en el comedor escolar y en la organización del centro. Participan en el mismo el profesorado, comedor escolar de gestión indirecta (madres y padres) y la nutricionista que asesora el proyecto, que se aplica a todo el centro educativo. El comité de seguimiento se reúne cada dos meses para analizar la evolución del proyecto y para plantear dudas, así como temas para las charlas que se organizan a nivel de toda la escuela, dirigidas a padres y madres y al alumnado.







# Inauteriak, herri festa koloretsua

**Aurten Inauteriak inoiz baino lehenago etorri zaizkigu, eta eguraldi ederrarekin gainera, nahiz eta klimatologia ez den eragozpena izaten era honetako jaietan, mozorroa izaten baita horretan benetako protagonista.** Ez dio axola ez euriak, ez elurrak –iaz gertatu bezala–; inauteriak "balen kontrako jaken" moduko jaiak dira, inondik ere, edozeri aurre egin eta gorputza dantzaren eta musikaren erritmoaz berotzen baitute.
Aurten, beste urteetan bezala, giro aparta izan zen nagusi ikastetxeetan. Irakasleak, gurasoak eta ikasleak berehala girotu ziren, eta ilusio handiz bizi izan zituzten inauteriak, urtero bezala. Eta aurten gainera, eguraldia aldeko izan genuen, eta eguzkiaz gozatzeko aukera ere izan zen. Ezin gehiago eskatu!
Eta horren guztiaren erakusgarri dira Donostiako Altza Ikastetxetik, Eskoriatzako Luis Ezeizatik eta Zarauzko Orokieta ikastetxetik bidali dizkiguten argazkiak.















# XXV Aniversario de Murumendi ikastetxea



**ESTE CURSO MURUMENDI IKASTETXEA DE BEASAIN CUMPLE EL 25 ANIVERSARIO, DE AHÍ QUE DESDE OCTUBRE DEL AÑO PASADO SE ESTÉN LLEVANDO A CABO TODA UNA SERIE DE ACTIVIDADES PARA FESTEJAR ESTAS BODAS DE PLATA.** Recientemente, el 27 de febrero, finalizó la exposición de fotografía que desde el 18 de ese mismo mes se podía ver en el Cine Usurbe. También en febrero, y dentro de la Semana Cultural, tuvo lugar un teatro con los padres, madres y profesorado del centro como protagonistas. Finalmente, se va a sacar un libro con dos partes bien diferenciadas, en una de ellas se recogerán los trabajos actuales del alumnado de diferentes ciclos y, en la otra, artículos de personas que, de alguna que otra forma, guardan o han guardado relación con el colegio en muy diferentes aspectos.

# OROKIETA IKASTETXEA estrena página web

**RECIENTEMENTE OROKIETA HERRI ESKOLA DE ZARAUTZ HA PUESTO EN FUNCIONAMIENTO UNA PÁGINA WEB REALMENTE COMPLETA,** en la que se contemplan diversos apartados tales como: Escuela, Profesorado, Alumnado, Familias, Servicios, Multimedia y Enlaces, entre otros. También dispone de una visita virtual al centro y de un interesante espacio de Noticias en el que se dan cuenta de las actividades que se están llevando a cabo en el centro, tanto por parte de la Asociación de madres y padres, como del propio Orokieta herri eskola.





# Ikas-Bi Jaia

**Maiatzaren 15ean Iparraldeko eskola publiko elebidunen XIX. jaia ospatuko da**, eta urtero bezala, Donibane Lohitzuneko Du Contenia parkean antolatuko dute; eguraldi txarra eginez gero, bertako tenis zelai estalian izango da jaia. Aurtengo edizioan, jarduera hauez gozatzeko aukera izango da, aurreko urteen antzera: kontzertuak, puzgarriak, pailazoak, dantza, etab. Dantzaren alorrean, Gipuzkoako hainbat ikastetxek parte hartuko dute, hala nola, Donostiako Zuhaizti ikastetxeak eta Ordiziako Urdanetak. Bi ikastetxe horiek urtero parte hartzen dute beren dantza taldeekin, ia jaia sortu zenetik beretik.

# ESKOLA TXIKIKO JAIA 2005

**GAUR EGUN, EDOZEIN UDALERRIRENTZAT ZAILA DA BERE IZAERARI EUSTEA BERTAKO ESKOLARIK GABE. ZEIN BIKOTEK JOAN NAHIKO LUKE ESKOLARIK GABEKO HERRI BATERA BIZITZERA?**




Egoera hori kontuan hartuta, tamaina txikiko udalen eskolak batzen dituen elkarte bat osatu zen. Elkarte horren ardura da, azken finean, ikastetxe horien arazoei irtenbidea ematea (jangela, garraioa, ratioak…), irakaskuntzaren kalitate maila hobetzea, eta aurreiritzi ezkor askori aurre egitea.
Elkartea udalerri hauek osatzen dute gaur egun: Aduna, Aginaga, Aia, Aizarna, Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Angiozar, Arroa, Asteasu, Berrobi, Bidegoian, Elgeta, Ereñozu, Errezil, Gabiria, Igeldo, Ikaztegieta, Lizartza, Oikia, Zerain, Zizurkil eta Zubieta.
Eskola Txikietako Guraso Elkarteek hainbat ekintza antolatzen dute urtean zehar; ekimen horiek elkartearen helburuak betetzen lagunduko diete batetik, eta bestetik, ikastetxeen arteko lotura sendotuko dute. Ekimen horien artetik urteroko Eskola Txikien Jaia izaten da aipagarriena.
Aurtengo jaiaren antolamendua Elgetaren ardura izango da, eta ekainaren 12an elkartuko gara, urtero bezala, egun ederra igarotzeko asmoz.

# MATRIKULAZIO kanpaina

**Otsailaren 14tik 25era ikastetxe publikoetako aurre matrikularen kanpaina egin zen. "Euskal Eskola Publikoa, munduari zabalik, berrikuntzei zabalik" leloa izan zuen kanpainak; izan ere, Euskal Eskola Publikoa munduari, ezagutzari eta irudimenari zabalik dagoen eskola da. Euskal Eskola Publikoak aukera berdintasunaren alorrean esku-hartzen du, kalitatearen eta berrikuntzaren parametroetatik abiatuta, eta hizkuntza aniztasunean oinarritutako heziketan aurrera egiteko urratsak egiten ditu.**





# Premio de Matemáticas en el Instituto de Lasarte-Usurbil

**El alumno del Instituto de Educación Secundaria de Lasarte-Usurbil y vecino de Lasarte-Oria, Yong Jian Zhan, de 18 años, se hizo con el primer premio en la Olimpiada de Matemática del País Vasco convocada por la Real Sociedad Matemática Española (RSME). La prueba, destinada al alumnado de Bachillerato, se celebró el pasado 21 de enero en la facultad de Ciencias de la UPV y contó con la participación de 74 jóvenes. Se trata de la primera fase de la Olimpiada, que se decidirá definitivamente el 20 de marzo en Santiago de Compostela con una nueva prueba entre los tres mejores participantes de cada una de las comunidades españolas.**

# Fiesta Escuela Pública Vasca



**La XIV Fiesta de la Escuela Pública Vasca, organizada por EHIGE, se celebrará este año el 5 de junio en Agurain-Salvatierra.** Como en ediciones anteriores nuestro objetivo es que este evento tenga un envoltorio lúdico y festivo, aunque también queremos aprovechar la ocasión para trasladar a la calle una serie de reivindicaciones compartidas por otros sectores de la Comunidad Educativa: el Ciclo 0-3 años de la pública; la necesidad de elaborar un nuevo mapa escolar adaptado a la nuevas necesidades de nuestro pueblos y ciudades; la necesidad también de superar los modelos lingüísticos actuales para facilitar la tan deseada normalización lingüística; la gratuidad de los libros de texto; la participación de las familias en el entorno escolar, y un largo etcétera de cuestiones.

## Jolas kooperatiboen tailerra

**Aurreko otsailean jolas kooperatiboei buruzko tailerra antolatu zen Orokieta ikastetxean.**

Tailerraren helburua mahai joko eta joko fisiko kooperatiboak ezagutzera ematea zen, balioak helarazteko baliabide gisa erabili ahal izateko, mota horretako jolasetan ez baitago ez irabazlerik ez galtzailerik. Jolas horien helburu bakarra denek batera une atsegina igarotzea da, eta horretarako, zoriontasun giroa sortzen dute, balioak esperientzia atseginekin uztartzeko. Tailer honetan Orokietako jatetxeko begirale guztiek parte hartu zuten.






Erosten jakin

EROSKI

GARBERA - URBIL
ARRASATE

**miramon**

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

# DONOSTIAN

## *HONA HEMEN ZIENTZIA AURKITZEKO FORMULA:*




**[jakin + jolas]$^2$ = miramon**

*__Kutxa__k, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, __Miramon.Zientziaren KutxaGunea__.*
*Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.*

- *156 esperimentu elkarreragile.*
- *10 gaikako erakusketa iraunkor.*
- *Planetarioa.*
- *Behatoki astronomikoa.*
- *Aldi baterako erakusketak.*
- *Ikastetxeetarako hezkuntza-programak*
- *Programa didaktikoak*
- *Aparkalekua eta bertaratzeko bide erosoak.*

***Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA***

| | | |
|---|---|---|
| Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte: | Asteartetik larunbatera | 10 - 19 h. |
| | Igande eta jaiegunetan | 11 - 19 h. |
| Ekainaren 1etik irailaren 30a arte: | Asteartetik larunbatera | 10 - 20 h. |
| | Igande eta jaiegunetan | 11 - 20 h. |

Itxita: Astelehenetan, Urtarrilaren 1an, Urtarrilaren 20an eta Abenduaren 25ean

www.begira.com

kutxa
gizarte ekintza